

# EUZKEL ATALA

## BILBO' TIK

**"ANA MARI"-RI**  
Zure azkan-urrunego idaztarian, esanez zegoan nola bakarrik agertzen ziran idaztari laguntza gabe, ba noiz jakin-garri egon iaku. Mirentxu arreba. Zorionak arturik beronek, zure azkenengo idaztaria Ba Mirentxuk diñonez, idazteko beren bidea, nola zueganid etorri iakon, ta baita diñonez besteren bape noiz auzi-garri igon biar dabela; ba oinuze neure uestez, zer atxiki inini ez daukozu Ana Mari, da ikusiko dogu arreba Eusko-zale biotzekuok nola jarraitzen dugun geure Ama eskerreare nuzkera alkarturik zabaltzen: Zorion ugariatzuk opa cautsuedaz biotzi; Zorion izango gara ezaugarri, ta orduan gozo ta egoki abestuko dautsue Urrerxindorrrak.

**UDA BARRIA**  
Zain zain gago uda barrixa ikusteko loratzuk apainduta, ba oingo aspaldien euri ta euri dago: Nunbait gure Deun Aita Josebak, samairtu ta apaindu bioskuz, gure zelai ta mendit txontxort guztiok bere egunko loratzueguz.

**PIZKUNDIA'KO BATZAR EUSKO-ZALE GUZTIORI**  
Anaiak: Biotz-biotzez zorion ugariatzuk; aitzu baño len neure zorion ugariak artuko duzek anai arrebaxu guztiok. Pizkundia aldra batzarreko biartu langille guztiok. Pozan pozez ez dakit nola asiera ta agurra emon, ikusirik begiak lanbroz garbiturik, da biotzez askaturik, notin mailkoak urteton dost ondiño "Oldargia" gogozturik.

**URRETINDORRA.**  
ORDUA ZAN  
Da banator luzarotan alde eginiñ egon da barrio Euskel-atalera ziurtaceaz aurrerantzian apurka apurka orain arte baño geyago idazteko.

"Arrea ona egingo ete deuste Euskel-atal onen irakurleak? Eta idazleak? Aldi aretan, idazten nebanian, kontutxu geyago eukiten nebanan idazleak irakurleak, baña, eta orretxegatik diñot zer-lango arrera egingo deusten Euskel-atal onetan idazten jarraitu daben idazle zintzak.

Goazan orain jakiten nortzuk izan diran nire alde egitearen.

**ERRUDUNAK**  
"Aberri" lenengo eta gero "Txori-Erreka". Geyen bat onetxek izan dira eta euek dakiz ondo zegoatik.

"Ze zoritxarra!" Zegoatik eginñ nau Juan Goizkorko aitz biotz bigunekoa erreztasunik erresenagaz edozein gizon maitaterra etzeko?

Orri gertatu jatan "Aberri" eta ez daukat lotsarik "Aberri" maitaterra eldu mintzale esateko, aurtarketa onek eragozen ez deuste ta beste batentzako neskatil patxakakoa izateko.

Ikusi bestela ez bizkor begiagaz jo nituan "Txori-Erreka" "Aberri" oñitxaketa emon eristian Errenderiko neskatil batetik.

Baño neskatillea; ez uste izan ni baño ederrago zaranik.

"Txori-Erreka" barriz ulemotzduz neska emategeirik ez dabela gura ta itxi nituan.

Ordu txarrian jayo mintzan, i Zoritxarra Baña ptxetan nabe gajoa bik.

Jakin dayela "Aberri" Errenderikoa baño politago naizela eta "Txori Erreka" baño bai berak maite daben Laruskain aldeko neska ule luzea baño ederrago naizela.

Gaurko naikoa dala uste dot beste batarik; orduan, zelako gogaldia, alako hizkia. Goazan orain jakitera ez aizek.

Ekarki naben gaur onera.

Hiñok ez ete dau esango neskaraz gelditxeko bildur naizela, ego barrio be gizongei bila narrela?

Izan leike baña ez gaur beintzat eta ez lengoen bila be.

Orreik baño gausa biarrekoak ekarki nabe Euzkel-atalera.

Emengo euzkotarre biotzkada sakon bat emon deuskun akulu zolyiak bultz eginda nator.

"Pizkundia" bazkintza barri onek bere hizbita laburrian egin daben biar aitz biarrekoak ikaratuta itxi nau eta berak beorturik eta EUZKADI'ko artekaritazatik artu dodan idazkia aitzaki artu ta, nator txalo bero berok irabazi daben gazteai neure agurrrik beoena jaurtitzin.

"Oldargi"! Ze ederra! Ze ikusgarria izan da!

Zazpi atalatan Euskel-Erriko zazpi biotz-irudi agertzen dira, bai izkiz, bai ere izi eta bai margoz egoki egoki.

Ez dogu itxutasunez geure begiakak bakarrik ikusten.

Geuk nai lez ez dautsugo begiratu biar. Antzokian izan diran guztien ustia izan da atxe: Begi-begikoa dala "Oldargi" antzezia. Antzezgilte ona dala "Mendi" eta baita Jose Jabier de Legia et: barcñ Zubizarretagatik eta bardin Gegalazagatik eta bardin danakaitik. Agerkirik onena auxe da larubatian antzokia beteta; igandian arratsaldekoan geyago, eta gabian sarrierik ez skontzako. Martitzen barrio egin ziran erriak eskatu eban da, eta azkenengo orduan barem lagun eta geyago atian sartu ezin da.

Gora zueik "Pizkundia"-ko emakume ta zintzo zintzo eta eusko usaña maite dozenok!

**OSATEBAKUNTZA**  
Osatebakuntza egiten etorri ta ehnen aurkitzen da gure aoidisde euskeltzale zintzo dan Bilbaular Erramunda Muxika-tik etorria. Aibert arinone osatie opa dautse Jaungoiko arengalantusanagaz batar.

**GAIXORIK**  
Alan aurkitzen da Landat' Erramon. Aibert lenen gure artien ikustie itxaroten deutsogu.

**PELIKITA MUXIKAKORI**  
Poz pozik irakurri dot zure bigarren idazkijie gure egunarako EUZKADI izparringiko Euzkel-atalien. Asko poztu nenduen ain izpar barri ederrak ikusi nebaizen. Olanixe jauritu aurrerantzabe orke izparrak ugeri eta beti euskeraz, egin Batez be abesturik onplan.

Ai geure Euzkai, Euzkadi maite Ai geure amaxo latzana, Egiz zara zue eskotarrantzat, jaunak egin zenduzena.

## ATXONDO-EIZA - IZTIA EDO ABERE TA PIZTIAK

Lezo'ko A. Agurgarria'rena Euskera irakasten dan ikastetxetako irakurle politikoa. Bi jaurteko'ren ordez. Amar ale baño geitago eskatu ezketiño, nerkeago oñra.

EUZKADI'ren barakolean salgei.

## MANARI

**YUAN-ETORRI**  
Otzandiyo'tik etorri zan Uztalut'ar Yone anderea.

Galdakao'tik Zubizarreta'tar Errosale ta Pele anderea.

Arasate'ra yuan ziran Ortuste'tar Kepa ta Barrueta'tar Yoseba Mirena mutillak.

Gaitez'era yuan zan Matzaga'tar Dorota.

Bilbo'ra yuan zan Azkuna'tar Bingen.

Ezkon-ibilketia egingia lengo astian etorri ziran Solaguren'tar Mikel eta Aldekoa'tar Gotzone senar-emazte gaziak-ERROTZA

Igaro zan asteko barikuan il zan Zearra'ko Olaetxea'tar Miren andrea. Bere gopuaren obraltzia igande arratsaldian izan zan, jente askok lagundurik.

Atsekabian laguntzen dautsugo bere seme-alabai. Yauak zerman euki bei il-dakoaren gogoa.

**GEIXUAK**  
Geixorik dago Zubizarreta'tar Augustine anderea. Oasuna opa.

**BEDERATZURRENA**  
Asteartian asi zan Yoseba Deunaren bederatzurrena. Eleizkizun onetara aibat gente yuaten da.

## MANARIKO-ZEANURI

**ALTZIBAR'TAR ERNESTO IL DA**

Goiko Jaunak alan gururik, 47 urteaz, ondiño sasoirik onenian, ludi onetatik iges egin dau erri onetako seme on da osalari entzutezua osalaritza amaitz ondoren urte batzuetan emen egozan osalari, da gero ezkontzaz Getxo Algora'ratu zan da oso gurixen andien euki dabe lekuan.

Aspaldi onetan bere belbi ederrian sarri izan dogu emen ama-arrebak ikertuten etorte zan da. Erri au, bere erri au oso maite eban, da bearrizen guztietan lagundu da goralduen etzala atzera geratzen. Ondiño aldi andirik ezala emen izan zan; beti gogatzu da umore onekua, baña ontzuko gikiertalcan itunago aurkitu gendun, bere barruen bea bada esan, zenkian azkenengo eguna neure erri onetan, illuntzite eukan berak gero yakin dogune lez luzaroko etzala. Goiko Jaun onak atsedena emon bekio. Da geure la mal gauru sendi guztaeri.

Da erriarrok, otoi egin dautsun arimeen alde.

**ZUGATZ JAYA**  
Urtero lez 400 enbat eskoña ume batu dira emen zeyan Uribe, Arlerne, Alitzute, Undurruga, Ipiñe da Plaza'koak.

Goazan txistu da danbilan otzian Goikolexaratu ziran. Udal-gizon, irakalase da txanburu jaun da abar. Meza entzun ondoren euron zeregiñok egin ebezan ladara ipiñi, da txanburu jaunak itzalditxoa egin eutsien Udalak banandurik egi txiki da gogozgarri batzuk. i Jai oso polita!

**IJITOK LAPURRETAN**  
Emen Undurruga'ko auzunian lengo egu nien etxe biztanle barik aurkitu eban ta sei koltza lana ostu eban gabezan. Goazan goxetik Bilbo'ra edo ezeban, da barrio latsa gitxigaz geyagone eske. Garcazubillai dei eginda atrapan ebezan, da emen espetxean sartu be; baña urrengo goxean leyoa apurtuta iges egin eban da ondiño atrapan dabezanik ezta zaratik onangoi errien sartzean e ziti onena.

**EZBEAR BAT**  
Ipiñe'tan zugatzak botaten dabiltzela Santa Ageda'tik gora azpian atrapatu be arna apurtu dau Arza'tar Peli Goiko'ko mutillak.

Naiko ondo aurkitzen da, da laster osateko lez.

**IGANDEAN OSO OSTE ANDIA EMEN**  
Pelota tokie dala-ta yente edo lagun izugarrie bilduzan emen Arratza'ko erri guztietatik. Baña gausa bat esan biar dautsugu emengo mutil batzeri. Jokolari edo pelotan ondo yokatuten dakienak dotozian; lagunak zoezer ikusi gurarik egoten dira, da ezta bada barik beste erri batzuetan lez erroi be yokatzen itxi biar bakela uste dogu. Errikoak beifago izan arren, astia badabe egun guztian yokatzeke.

BASERRITAR BAT.

Polito-polito etorten da "Euzkel-atala" aspaldian.

Erri onetan, izparraki benetan bizkorrik dira, euskieria gogor eutsiten dotseñak. "Algorri" biotz onetako mutilla neure adiskide benetako, aspaldian makal-antzeria dabil baña euskel lanetarako beti gertu dago, biotz andia dau beronek; "Tximelarpoko artzaña" Tabira aldekoa izatez, erri onetan bizi dana, euskeltzale zintzoa, buruko uliak urdinduten joakoz baña, ez euskeltzalestasuna; "Goiterra", nor dan ez dakit, baña are izparrak ta barrikaldiak gogotsu irakurten doaz. Neure arterako esan be bai, z nondik agertu ete da?

Erriak baster asko dauz ta bazterren batetik agertuten jaku. berak sarri sarri egiztatuten dau "Euzkel-atalian". Orixe da nik dakidan guztia.

Beste izparraki batzuk be agertu ziran da, egunero-egunero Galdakao'tik bicalduta "Euzkel-atalian" zerbait irakurriko nebala ta pozik pengan da, utsat urten eustan, laster bai laster amatu ziran euraik ekarri euskuezan poztasunezko amesak.

Ez orregaitik uste aitzuta ta baztertu dotala euskiera edon et edonoz erabilten dot eta. Nire sendian euskel-ikurra dogo. Onegaz ez dot esan gura beste batzuen sendietan ez dogala euskel-ikurrik, ez neure guraria erakusten emon, eta bide batez, nire antxiñako izen ordia aspaldian, izparringio onetan eztalako ikusten baño.

Nire zorionak ba "Algorri", "Tximelarpoko artzaña" ta "Goiterra" izparraki zintzo orri ta jaurtin zeuen biotzeko agurrak beti euskeraz. Euskera bakarrik arakatsi euskun geure amak be, ta i beti amak, maitasunagaz, arakatsitako berbita erabiliñ biar dogu!

**U. P. TARRAK BE EUSKERAZ?**  
Lengo igandian "Goiterra"-k ipiñi ebanetako izpar batek emengo U. P. koak, izan ziranak, orri diñogu, gaur, beste baten gerizpian jarri diralako, ba orrek U. P. r sartu ziran obe zalakuan, baña usain txarra dogo toki orretan, ze, bertan beira itxi ta beste batzuben gerizpera zuzen du diru. Joan-etorri guzti onek jeltzailko ondutiarren bakarrrik egiten dabez. Egitala zekena da gizontzat bere burua dautkanantz, baña, orrek... orretarako bakarrrik daukie euren zanetako odola.

Zer esatera noan be aitzu egin jat, artu dodan abiadiaz. Ba... guntarrak baño be ondiño arduratsuzko ibilli dira igande orretako EUZKADI' billa U. P. koak "Goiterra" zuk bai zabaltzen dozula geure elez egiten daben izparringia.

Erriand agindu gura ta, "euren ondastun kaltez izan da be" zuk esaten zeindun lez euren izenak emotera, egunero-egunero Bilbaol-aldian ikusten izan doguzanak, lenauro euren nagusi ta geure arerrio amurratuak diran jaun txuak gana amaika "errotabilla" ibilli dabe erai emoteko udal ego ayuntamientuaren agintzia.

Egi onek ezin lez inok guzurtzu ta ori olan izan arren, lengo makurra (giboa) al-dian erabiliko dabe aurrerantzian bere. Besteren bizkarrian inor ez da erretan baña norbere etxia erretako, inok erretako, egur bila ibiltia, ezta obe izango.

**BILDUR.**  
**OTZANDIYO**  
**YUAN ETORRI**  
Igendian egon zan Bilbotik etorria, Eredia'tar Lore, bere eteko gauzari ikuste aldetxo bat eiten. Baita egonzan, Gaitezik dik etorria Montes'tar Emile, erri onetako irakalase zarra. Neskatotxuek pozetik ikusten dabe beran, baita beronek bere, maite dauz euskeldun onak legez.

Gaitez'eren yayo ta azia izan arren, guztiz ederto egiten deu euskera ametxualcin. i Baña tamala artzeko gausa da, Arabarrak euskera, umiak, ta Bizkaitarrak euskera egiten duanari yo egitea!

Gausa onen ganian idatziko dot urren-goan.

**UDALAREN LANAK**  
Gexo etxeko batzarra ipiñi deu, artu dautsugu udalaz ganera emengo ardua. Batzaru buru parroko jauna, batzarreko, Joseba abade jauna, ta Olazabal'tar Errupioñ. Jaun zintzo ta leiyalak dira ba eurok lan eiteko gausa onetan.

**LANAK**  
Igaro dan larunbatian, utsitu dabez "Omega" lengoan, amalau langille, lanak gixtutu direzalako. Erriyan itun duten asi da ba goza duelakoan, bere yuengo ete dan.

**UDAL BARRIYA**  
Nere uestez Udala aurkitzen da ez yakiniñan, erriko gauzakin, ta nire biar izana da, erriko seme ona legez utsak artezteko. direla daukiez artuta, baso zati bana, gilenko Udal zarrak, euek agintari izan txienze bostek beintzat, erriazie aurretik dala, amar urterako txindi edo dirurik or-daindu barik. Onen alde egin daben lana da, mendira jun ta suc emon ta erre euron diren. Onak badira mendiyaren duñigu bere ez gara gixtiago ta emon lur zati bana erriarriar.

Oniek oñra U. P. (patrioten) lanak. Eurenua eurentzako ta besteena erdibana. Onelango (patriotak) au egin ezkerko... zer egin biar ete geunke guk?

Errezki euek bere Erriberako Lengua legez bizarra itxiko dabel!

**ANA MARI, BILBOKUARI**  
Lengo egun baten ezagutu neban zeure neba, gaitzarta ta geutarra. Guztiz gizon ona ta itzuntza ederreko; biyok alkarrakin euki genduan, geure gauzak atutzeko aldiya ta onan itzaldien agertu eban zelan bere arrebak idazten eban Euskel-atal onetan.

Ia ba aurrerantzia be yarraitu ba biar biarrekoak da emakume euskaldunak euskeraz gogor azi dittezan geure itzelta onen igan dagaian.

Artu ba nere poz agurra ta eskatu laguntasuna ba gertu gagoz beti alkarrari laguntzeko ta. Agur urrengorarte.

**ANDIK-ONA.**  
**YUAN-ETORRI**  
Bilbo'ra yuan ziran Unzalut'ar Katarie anderaña. Uriarte'tar Irene ta Ormaetxea'tar Miren anderak.

**BERARA**  
Berara Urkiola'tar Sorne, Unzalut'ar Domeka'ren alarguna.

Gaitezik'tik Monte'tar Emile irakaslariya.

**JAYOTZA**  
Aurtzo bat izan dau gure errikide ta aiskide maite Unzalut'ar Bingen Bera'ko osalari jaunak. Urte askotan zeuen zorion eta atsegeriarako izan daitelak.

**EGURALDIYA**  
Oso txarra igaro diran egunetan. Kallera be urten ezin da emen aurkituten gara; ba ibili dau aixiak beragaz batera eruangon ginduzke. Da Yakiniñ zan, udaberriya etorri baño lenago purrusta dan batzuk botako zituana.

**GAIXO-ETXERA**  
Bilba'ko gaixo-etxera eruan dabez Pujana'tar Tomase ta bere ama zarra; baita Oyanguen'tar Yon (txotxiko) be. Guztiz osatuta bihurtuko aldira ba euren etxietara.

**GARIZUMA**  
Aldi duen onetan oi diran eleizkizunak eiten dira ostie andiyagaz. Egunero kristiñan ikasbidien azalabna; barikuntzan "Miserere mei" abestuta ta Ama Nekatsuren agurra; eta igandetan itzaldia ta Gurutzal-bidia. Igaro dau igande arratsaldian txanburu jaunak "Asterketia" ederto azaldu euskun eta pozik eutzun gendun.

**BEDERATZI URRENA**  
Beste erri batzuetan lez, emen be onerapen andiya yako Joseba Geunari. Oste andiya dabil zazpi igandiek eiten eta erriko geiyenak dotoz egunero bere bederatziruñnera be.

**BULTZIYA?**  
Zer edo zer zurrumurrua bultzi ori dala ta izan da lengo egunetan, baña, zoritxareez, ezabez. Tiburtzi yarritia zagoz? bai? ba egon olantxe, bestela nekatu eingo zara ta.

**LAN GTXI**  
"Omega" lantegiyetatik amalau-enbat langilla bialdu da ber etxera lana gixtutu dala ta; euren artian, geure aiskide Anso-la'tar Yoseba. Tamal artzen dogu ta luzaroko ez alda izango.

**"ANDIK-ONA"-RI**  
Eskerrik asko, igandeko lorak gaitik, baña egundo enaz eiztariya izan mendi ta ibarretan, etxian eta erretilian baño. Au oha zeta? i bai, zelan be! i Zeu, bai, zeu eiztari azkarra! Zeuk bai "karabina de Ambrosio"-gaz be, yaurti azkeru, botako dozu i ori zuri! Ederra yaurti zendun zuk igandeko idazkiyan be! Aitu gura eabentatza nauku.

**"BASERRITAR BAT"-I**  
Eskerrik asko zere arerra onagaitik. Aspaldi onetan, i nundik ibili nagan diñogu? Ara: Baidakizu Belgika'ko erregen alabea Italia'ko erregen semegaz ezkontu dana zeta? ba, onen euren ibildiyetan languduten izan nau Signore "Dango" lagun dotala. Egun ederrak igaro doguz aibert eta azken agurru Turin'go uri ederran ein guntzen; ba, irakurriko zendun lez uri onetan biziteko gogoa dauke ezkon barriko eta. Nire opor aldian ordaukazu azalduta.

**ENDORE YAUNARI**  
Gexo etxeko garbitasunagaitik nire pozagurrrik sustuena artu bei endore yana; ta aurrerako daukanan asmo zuzenak betetan badauz bedorren izena lekuri garaiyenian ipiñiko dau ta uriyau izan diran endore onen artian ipiñeko duñi izango da. i Aurrera! daukuzan areriyarik Etxebarri'ko Yoseba'ren beribillian eruan leikez da.

**NOZ EZKONTZEN DA?**  
Agindua zor dau lez, gaur ipiñi biar dodaz, igandeko mutil pauparroiaren emazte geiyaren zertzeladotxo batzuk. Neskatilla gazte, burri argi, sarden eta lirainia. Kale barruan bizi da ta erri guztiaz artu emon andiyak daukaz. Bere zeregiñak ague eta orduraño izentuta daukuzalako euste guztietan egun baten... beti egun baten urtengo dautso emendik igaroten beribil bateri. Gizonezkuak batez be yuaten dira beronegana ta dan, danak txinpartak dariyozelata bialduten ditu. Bere sendiyagaz bizi da bake-bakian. Begi zolita argiava dauka ta eztau onek lez inok be Otzandiyo'ko yentia ezagututen. i Nor da?

**BEKOLETA.**  
**ORTIK IRTEN**  
Jakin degunez, datorren igandez eta arratsaldeko bostetan "Lagun-Artea" batzoko artuan emango du itzaldi bat gure aiskide eta euzkeltzale dan Artetxe eta Araburu'tar Iñaki jaunak Zumarraga uri ko osagille ospatsu ta jakintsukak.

Geroni ere batza orretako idazkarijan aginduz etorri zaigu itzaldirako arrende, au da indibiztatu, baña zingero gera iuan, beste geure arteko gausa garrantzidun batzeri erantzuten.

Baño au ala izanda ere, bertako itzaldian izparra emango degu (Jaungoikoa lagun) bada, geure ordezkoa an izango da, noski.

Eskerrik asko gizonak zuben oroipean arren. Eta asketisi beingua gatik.

**JAGI TA ABLI**  
Auxe da euzkeldunok egin bear deguna gure euzkera ta aberriaren alde! Jagi ta ibilli! Ez beti lozorrnan egon eta txorikumeak bezela, dana abora ematekuan. Dana abora ematekuan ba'gaude artzekoz ilko gero, eta au tamalgarri ya izango da zifera. Geu jakia bialtu ta aurkitzeko lain izan, eta alperkeriz edo lotsakeriz (?) bestian gain dana utzitea ez gaxokio euzkelduneri. Ez Arrotzak esana da "Euzkel itzalek, beragaz darama odol gorri berua".

Odol gorri bero au era askotara gure aberri ta euzkera gaizkatzeko (salbatzeko) zorijan ipiñi dezakegula, esan bearrik ere eztago, noski, eta gaur baterez ikusten ditugun erreztasunak ikusita.

Ara emen bat: Aberri alde lan da lan dabilzantzeri zerbaitagaz lagunduta.

Baño zelako "zerbait" ete da? Ba zintzuk eskatzen dizkiguten au ete? Ba gure etxe dira eskaliok? Eskaliok eztra besterik Donostia'ko "Euskaltzaleak" ekuak (aditu ondo: neronek emendik aurrera "euzkeltzaliak" deituko diet euskaltzalek itza ogutuzten, esaten daben baiokezten eztaurrija legortu egiten zaialako) eta eguneko zentimua eskatzen digute.

Eguneko zentimorik ere, ba, ete diogu opa gure aberri ta euzkera'tari?

Neronek bai beiepein, eta dakustanez zoruzue, nere ingurukoak ere bai.

Irakurlia; datorren lekutik datorrela ez egizio inori ukatu zentimorik, Jainko ta aberri arren.

**ZAR-ZALE.**  
**ERMUTIK**  
Egundo ez da, gaur nator lenbiziro Atal onetara zoezertxu idatzi nayan, zuk, "Orixe", baimentzen banozu aurrera jarraitzeko.

Nun dira urri onetako izparrakiak? "Ernu-zale", "Langille", "Txindurri" eta abar gusiz zaude nagituta, nere begiak bai

dute zer atzeratu; aspaldin gure atal onetara, daukadaz iminita begi baik, noiz irakurriko ete dodan erri onetatik zoezertxu, baña alperrik da; neu nator gaur onera "Untzama-tarra" argitaldu naian izpar batzuk, eta bidez batian zuberi irurori, prakak askintzera.

**UDAL BERRIA**  
Txoko onetan ere jira bira eraman die, Udal gizoneri, onera jarriaz: endore Iturriaga'tar Lion; bigarren, Ormaetxea'tar Peromanda; irugarren, Ormaetxea'tar Eusebi, eta jarraitzen dabenak Suñiaga'tar Poli, Gorritxaga'tar Doretea, eta Suñiaga'tar Demuro; au Bartzelonan daukogu aspaldian, eta nik ez dakit nolain demontre sartu daben, i jakingo dabe batzuk!

Astigarra'tar Eladio eta Garate'tar Bernardek eztabe artu euren aukirik, ondo egiña. Neure zoriona biotzi.

**ARRI JASOTZIA**  
Emenko emparantzan igaro dan igandeko zortzi arratsaldian emulkin zintun, arri yatez eder bat, bi morrosko emon, Ormaetxea'tar Eli, eta Urizar'tar Anastate; "Ureta" eta "Ongarri" basetxeak, lau eta zortzi arnasko arriekin bakotxagaz amar minutu zitubela. Elik lenbizit zortzi-kuamaost eta minutu eta erdi gain gertatu; Eit-ari zan laukuzagaz eta irurogeta amar bidar leporatu eban; bestiak eldu bez, orra bada inor etzan izan garalle parra. i Aragiak bai joko indarra!

**ANTZERKI AYAK**  
Erri etxeko artuan igandetan emoten ditube antzerki jai ederrak ospatu daniem onauskue "Iziartxo" guztiz oste ederra bildu zan, eta egiliak egin eban lanari neuk jo notzaren txualagaz, esku barruak minduta dituzdab biak. Egiliak nortzuben diran: Gizakumia: Salaberria'tar Modesta, Mallagarai'tar Peli, Areituri'tar Joseba Mirena, Ormaetxea'tar Lesketzi, Garata, Jagoba, Izarra, Nereo, Albizu'tar Koldobika, Unamuno'tar Erramun.

Emakumiak: Bengoetxea'tar Miren, Unamuno'tar Elade, Izaguirre'tar Andone, Areitio'tar Alexandre, Iriondot'ar Pauline, Mallagarai'tar Matilde, Zabala'tar Bentura. Neure zoriona danori, eta zayatu zaiteste geure ele ederrekuak yaurtzen.

**BATASUNA**  
Egunogaz gure izparringio EUZKADI dabil "Tal como viene. La unión", auxe biar dogu, batasuna, gure aberriak sendatasuna emendik dakarkaguo onuen, gure ama